

Oteiza'k Arantzazu'ko lana bukatu du

Zeruko Argia, 350. zk., 1969-11-16: 12.

Arantzazu'ra iritxi giñanean lañutan zegoan.

Izandu ditugu udazkeneko egun eguzkitsu ederrak, bañan Aloña mendiko goiz onetan otz zan, eta argillun, euririk ez, ala ere; orzargi bigun onetan etorri zitzaigun begietaraño eliz-nagusiko frontoia; ala baitirudi. Frontoi onen oñean, eragizko gizon batzuek ari ziran beste arrizko ta iru metroko gizon tantai batzuek goitik bera, ura ta jaboi, sardarekin garbitzen: apostoluak. Ez amabi, batzuek dioten bezela; alaxe ziran aurrena, bañan Judas txibatoak salaketa egin zuanean Matias aukeratu zuten ordeko, ta gero San Pablo ta San Bernabe'ere apostolu bezela jotzen dira; ara gutxienez amalau; bañan emen ez dira amalau orregatik bakarrik, baita tokiak orrenbeste eskatzen zitualako ere, bestela gizenegiak aterako omen zitzaizkion Oteiza'ri!; ta, gañera, onek ez omen du garrantzirik. Nik ere ala uste. Ba arrizko amalau apostoluak otz arretan eta jaboi-ura burutik bera, bizkarretik bera, ta geldi-geldik zeuden, bizirik noski; gero, alako frontoi zabalgo aundi bat geratzen da goien, zeru moduan, eta gorago, zerutik gora bezela, arri biurtutako ama ta seme bat: Semea, luze-luze, gorputz-etzanda; Ama, berriz, bere Semea zaitzen eta il-bidurrak jota bezela zerura begira.

Ara zer agerpena!

Arantzazu'ko karilloiak abesten duan doñuaren esanak dion bezela:

Iturriak ba daki

Kañabera nun dan,

Andra Mari'k ere bai

gaxoa nun duan

Ta batek ba daki, ba, arri ori Markina'tik ekarritako karaitz arria dala; apostoluak, lau millana kiloko arriak dirala, bañan ala ere esan-naiez gañezka sentitzen dan beste zer bait agerian dute irudi oiek.

Erantsitako bizi-doai au emen, eliz aurrean eta gora begira-begira dagoan geldi-ezindako gizon auxe da; bizarra zuri ta luze, ta irurogei ta amar kilo ez dan gizon onek sartu dio, arnaska, orrenbeste tonelada arriri orain daukan bizia.

Erri kutsuko ertiaz jantzita daude gizon-apostolu baserritar oiek; begira akiezu arretaz, eta gorputz oietan ageri diran koskak mendi gañak dira, ta zuloak, berriz, erreka-bide sakonak; alaxe egin ditu Oteiza'k apostolu oiek, gure erriko mendiak ba lira bezela.

Eta izketan ari dira barra-barra; ta euskeraz, noski. Alaxe dio egilleak, alegia bakoitza bere indar berezi batekin, bere alako azentu batekin, jaio zala; bañan apostolu guziak elkartu ziranean bakoitzak bere-berea duan itz-goiti edo azentua galdu egin duala; euskerazko estrukturan itz-atal edo silaben azentuarekin gertatzen dan bezela. Ta ausartzen dala bera, Oteiza, gizon-apostolu oiek Zubero'ko euskalkian izketan ari dirala esatea ere.

Nork egilleari berari ezer erantzun?

Alaxe da mundu zabal osoan ertilari goienetako izanez gañera, edo lenago!, gure erri-erriko seme argi ta langille ta, Jaungoikoari esker, ameslari dan Jorje Oteiza. Ba ditu gure erriak (Oteiza'k berak dion bezela) tximini beltzez ornitutako ainbeste seme-buru, ta baita nai baño geiago ere; bañan Oteiza au bezelako tximini-txuriz ornitutako jakinduri ta ames buruak, gutxi. Ta, jakinduriaz gañera, ametsak bai baitu gizonen, eta errien, buruan garrantzi aundiko zer egin asko.

Remijio Mendiburu ertilari bikañarekin batera iritxi giñan Oteiza'rena, ta ondarrabitar ospetsu au biotz-ikututa geratu zan lanari begira; ta ala esan zion:

– Arantzazu'ko lan onekin oraindano egindakoz gora jo ta goi-maillako lan arrigarri bat egitea lortu dek.

Jorje (ikustekoa zen) biotz-ikarak jota geratu zan.

Alaxe, jaio-berriaren pox onekin izketan ari giñala asi ziran azkeneko garbiketan zebiltzen gizonak apostoluen buru gaiñetik jeixten; egurrezko eskaillera ere kendu zuten, eta ura apostoluetaraño zemakian tuboa ere bai. An utzi zituzten Ama-Semeak goien eta apostoluak beien, bere gixa, bakarrik, aurreneko aldiz; ikustekoa, sentitzekoa!, zan Oteiza'ren biotzondo nabarmena.

– Zer diozu? ausartu nintzan.

– Beste bat naiz –esan ziran Amari gora begira– orain arte izan ditudan buru-auste ta nekeak kolpetik uxatu balira bezela sentitzen naiz, eta barru-barruko pox gozo batek, daukat aidean; lengo egunean goiko irudia jartzen bukatu ta andamioak kendu baño lenago musu bat eman nion Kristo'ri bere arrizko buruan, eta egi-egia diozut, orduan, une orretantxe, nere espain oietan sentitu nuan arriaren otza ta ezetasuna ta alako kresal gusto ura oraindik aon daukat, eta ez zait bizi naizen artean joango; orrekin il nai nuke; on aundia egin ziran!

– Or, goiko bi irudien eta beko apostoluen tartean utzi dezun utsune zabal ori betetzeko asmorik ez dezu, beraz.

– Ez –esan ziran Oteiza'k– ara: gureztat, euskotarrantzat, utsik dagoan zabalgoa ta utsik dagoan utsro!; oso bestela, utsik eta iñork bereganatu gabeko tokia ba da ere, bakoitzak bere gain eta bere pentsakerekin eta otoitzekin betetzeko leku bat da, gizon-etxea da, gizonak bete bear duan toki egongarria da; ala, beko apostoluen arri-olatu onen eta goiko Ama-Seme miñan, barea, etzana eta indartsuaren tartean bear dana da utsune au, ta ala, goiko Errukiozko Ama nik azaldu nai nuan bakartasun gorri-gorrian ageri da.

– Alaxe da...

– Ta, gañera, eliz-nagusi onek errikoia bear du; nolana erriarena baita, or dago bere illa ere, eta emendik eliz-barrura sartzen danean eta aldare nagusia ikusten duanean, kanpoko frontoi antzeko paret zabalgo au oraindik buruan dauka, bere begietako memorian berri-berria dauka. Ori neri gertatua da; eliz barrura sartu, belaunikatu ta aldarera begira jarri orduko, kanpoan ikusi deten frontoi utsune au, gordeta barrura ekarri ba nu bezela, azaldu zait berriz buruan, eta, erdi-erdian ikusi det aurrean daukaten Arantzazu'ko Ama bere Seme-aurtxoarekin, eta ara nola kanpoko eriotzetik barrengo jaiotzara etorri naizen, eta eriotzaren kurpilletik Ama berriaren itxaropenera, pekaturik damura, illunpetik argira, eriotzetik berpizkundera; erori ta zutitu!; erori ta or

dago berriz gure Ama, txikia, apala, poxgarria, urrutiko izar dirdiratsu bat bezela, beti guri entzuteko gertu.

– Ederra da.

– Neretzat –dio, bere begiak txinpartetan, Oteiza'k berriz– au izan da barrenge poz aundiz bete dirana; nik asmatu bezela mamitu detela nere uste osoa; nik ertillari bezela kontuan euki dituan faktore guziak erabilli ondoren, sintesi au egitera iritxi naizela. Ez, noski, Paris'erako edo Erroma'rako edo New York'erako asmatuko nuan lana; nere ustez gure erriko gizon, mendi, arnas, jokaera ta ixtoriari dagozkien erti-lana baizik.

– Kosta zaizu –esan nion, nere malizi ta guzti.

– Bai; bi etenaldi ondoren eta amasei urte buru bukatutako lana artea, zuloa, erlijio tokia izan da beti; uts ori ez da ezereza; kontuz izan da; ala ere, nere naigabeak kosta ba zaizkit ere, nik nai bezela geratu da.

– Ez al dezu batere aldaketarik egin bear izandu?

– Ez, nik pentsa bezela, oso-osorik, bukatu det lan guzia.

Arantzazu'ra joaten danak or ikusiko du Oteiza'ren lan ernegarria bere zai; bear ba da ez bere egilleak euki dituan asmo ta bururatu dituan amets guziekin lorekatuta; orretarako beste Oteiza bat izan bearke luke-ta; beste mundu onetako gauzetan gertatzen dan bezela, batek sartu ainbat atera lezake, geiagorik gutxi; bañan ertilari jakintsu ta sumakor ta sentikorrak iriki dizkion bideak sentituko ditu nolabait; orrelako biziak, naiz eta errizkoak izan, gordetzen baitute beti fede onez eta maitasunez alderatzen zaizkientzat bere egilleak maitasunez eta fede onez eman dien arnasa.